

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abuztuaren 18a ▶ Osteguna



Gutxi balitz bezala, topa eta topa! AITZIBER IARTZA



Hementxe hasi zen gurutze bidea. ASIER COLOMA

Edalontzi baten abentura

ASTE NAGUSIA ▶ Udalak Aste Nagusi ekologikoa egin nahi izan du aurten, eta horregatik edalontzi birziklagarriak kaleratu ditu



Edalontzi berde biziklagarri donostiar izatea zein gogorra den jakingo bazenute! ASIER COLOMA

batek ni hartu, aho handi bate-ra hurbildu eta okerrarazten ninduen. Hantxe botatzen nuen zerbeza guztia. Behin eta berriro. Hamaika alditan.

Saguesetik Kursaal aldera eraman ninduten; tarte batean eskutan, beste tarte batean patrikan... Motxila edo poltsa batean ere izan nintzela uste dut. Beste toki batzuetan edalontzi berde biziklagarriek sokatxo bat dutela entzuna dut eta hartara, zintzilik eta askeago joan daitezkeela... Edalontzi berde biziklagarri donostiarrok, berriro, horrelakorik ez.

Beldurra, Kursaalean

Kursaalean, beste mota bateko komeriak. Izan ere, handik atera nahi ninduten, baina galarrizita omen zegoen edalontzi berde biziklagarri donostiarrik inguru hartatik ateratzea. Beste edalontzi berde biziklagarri donostiar batek esan zidanez, zinpeko goardiak eta hesiak zeuden, eta gure espeziekoak ontzi handi batera botatzen zituzten. Zergatik, ez genekien. Baina biok ados ginen edalontzi donostiar petoek ezin zutela ontzi hartan bukatu. Gehiago merezi genuela. Zorionez, Saguesen hartu ninduen eskuak azkar jokatu zuten —nahiz eta berriro patrikan sartu behar izan ninduen—, eta Kursaaletik ateratzea lortu nuen. Ozta-ozta. Eta nerbioek jota, jakina.

Ondoren, tabernaz-taberna ibili nintzen. Luzaroan. Batere glamourrik gabeko edalontzien ondoan. Buelta pila eman nuen. Beste esku batzuek ere hartu eta beste aho batzuetara ere hurbildu ninduten. Poz bakarra dut gaur egun: azken bi egunetan bakean utzi naute. Orain, lasai-lasai nago, edalontzi berde biziklagarri donostiar pare baten ondoan... Donostiako egunkari baten egoitzan. Haiek eman didate hitza.

ANDER USABIAGA

Ez da erraza edalontzi berde biziklagarri donostiar izatea. Bizimodu gogorra dugu. Benetan. Sortu berriak gara ia-ia, baina hala ere, gure espezieak bizitzaren gordina ezagutu behar izan du lehendabiziko egunetik. Begira joan den egunean Aste Nagusi izandako abentura.

Saguesen nengoen. Kaxa batean. Goxo-goxo. Edalontzi berde biziklagarri donostiarrez inguratuta. Gustura, beraz. Esku handi batek kaxatik atera eta iturri baten azpian jarri ninduen, ordea. Hortxe hasi zen desbentura. Iturri madarikatu hartatik zerbeza erortzen hasi baitzen. Heineken. Zer, bestela? Eta, noski, bete egin nintzen. Sekulako betekada! Iturri hura amesgaizto bihurtu zitzaidan handik aurrera; nora joan, han iturri madarikatua. Zerbeza isurtzen. Behin eta berriro.

Isurialdi bakoitzaren ondoren, gainera, beste esku handi

AGURRAK ▶



ZORIONAK
maitia.
Egun ederra pasa, Mamen!
Asier.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6)
 FOTO MIKI (Matia kalea 3)
 KATTAGORRI argazki denda (Larraixo pasealekua 26)
 DAM arropa denda (Narrika 23)
 EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!